

Gidabaimenak
Euskaraz

Gidabaimenak
Euskaraz



IKASLEAREN ESKULIBURUA

B baimena



Euskadiko Autoeskolen Federakuntza
Federación de Autoescuelas de Euskadi

AURKIBIDEA

1. GAIA OINARRIZKO NOZIOAK	1
2. GAIA BIDE-SEINALEAK	11
3. GAIA BIDEAREN ERABILERA	43
4. GAIA BIDEAREN BESTE ERABILTZAILE BATZUK	51
5. GAIA ABIADURA	61
6. GAIA IBILGAILUAREN ARGIAK ETA SEINALEAK	67
7. GAIA MANIOBRAK	77
8. GAIA PASATZEKO LEHENTASUNA	91
9. GAIA DOKUMENTAZIOA	97
10. GAIA GIDARIARI ERAGITEN DIOTEN FAKTOREAK	107
11. GAIA SEGURTASUN AKTIBOIA, PASIBOIA ETA PREBENTIBOIA	117
12. GAIA PERTSONEN ETA SALGAIEN GARRAIOA	129
13. GAIA GIDATZE SEGURUA	133
14. GAIA MANTENTZE MEKANIKOA	147
15. GAIA MOTOZIKLETAK GIDATZEA	153



GIZA FAKTOREA

GIDARIAREN DEFINIZIOA

Direkzio-mekanismoa maneiatzen duena da, ibilgailu baten agintea duena, edo animalia baten kargu dagoena.



Gidatzen ikasteen, aginte gehigarrien ardura duena da.

Ohiko gidaria da ibilgailuaren titularraren baimenarekin ohikotasunez edo maizen gidatzen duen pertsona; titularra da dagokion erregistro ofizialean ibilgailua bere izenean inskribatuta duen pertsona.

OINEZKOAREN DEFINIZIOA

Gidaria ez den eta oinez ibiltzen den pertsona.

Baita honako hauek ere:

- Motorrik gabeko ibilgailu txikiak bultzatzen edo herrestan eramaten dituztenak.
- Oinez bi gurpileko ziklo edo ziklomotor bat bultzatzen dutenak.
- Gurpil-aulki batean zirkulatzen dutenak, motorrarekin edo motorrik gabe.
- Gurpil-oholak, irristailuak edo antzekoak erabiltzen dituztenak.

IBILGAILUAREN FAKTOREA

MASA-KONTZEPTUAK

TARA

Hutsik dagoen ibilgailuaren masa, barnean hartuz erregaia, ordezk piezak eta osagarriak.

KARGAPEKO MASA

Kargatutako ibilgailuaren masa: gidaria, bidaiariak eta karga barne.

GEHIENOKO MASA BAIMENDUA (GMB)

Ibilgailuak bide publikoetatik zirkulatzeko izan dezakeen kargapeko masarik handiena da.

IBILGAILUEN SAILKAPENA

MOTORRIK GABEKO IBILGAILUAK	IBILGAILU MOTORDUNAK	
<ul style="list-style-type: none"> ♦ Animaliek tiratutako ibilgailua. ♦ Zikloa. ♦ Bizikleta. ♦ Atoa. ♦ Erdiatioa. ♦ Karabana. 	AUTOMOBILAK <ul style="list-style-type: none"> ♦ Motozikletak. ♦ Motozikleta sidekardunak. ♦ Hiru gurpileko ibilgailua. ♦ Kuartziziklo astuna. ♦ Turismoa. ♦ Turismo eratorria. ♦ Pickupa. ♦ Ibilgailu misto moldagarria. ♦ Autobusa edo autokarra. ♦ Autokarabana. ♦ Furgoia / furgoneta. ♦ Kamioia. ♦ Trakzio-kamioia. ♦ Ibilgailu-taldeak. 	IBILGAILU BEREZIAK <ul style="list-style-type: none"> ♦ Nekazaritzako traktorea. ♦ Atoiko nekazaritzamakina. ♦ Traktore eta obra- edo zerbitzu-makina autopropulsatua. ♦ Tren turistikoa. ♦ Quad-ATV.
MOTORDUNTZAT HARTZEN EZ DIREN IBILGAILUAK <ul style="list-style-type: none"> ♦ 2, 3 eta gurpileko ziklomotorra (kuatriziklo arina). ♦ Kuartziziklo motorduna. ♦ Tranbia. ♦ Mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailua. ♦ Mugikortasun pertsonaleko ibilgailua (MPI). ♦ Pedalei eragiteko laguntza duen bizikleta. 		

IBILGAILUA: Erabilera orokorreko bide edo lursail publiko edo pribatuetan zirkulatzeko egokia den aparatua.

MOTORRIK GABEKO IBILGAILUAK



Animaliek tiratutako ibilgailua.



Zikloa.



Bizikleta.
Bi gurpileko zikloa.



Atoaia.
Trakzio-ibilgailu batek atoian eramateko ibilgailua.



Erdiatoia.
Automobil bati akoplatzeko ibilgailua.



Karabana.
Etxebizitza mugikor gisa egokitutako atoaia edo erdiatoia.

MOTORDUNTZAT HARTZEN EZ DIREN IBILGAILUAK



Ziklomotorra.*



Kuatziriklo arina.*

*Gehieneko zilindro-bolumena, 50 cm³, eta gehieneko abiadura, 45 km/h.

Ziklo motorduna.
Pedal bidez funtzionatzen dute, eta pedalei laguntzeko propulsiio lagungarria dute, propulsiio lagungarriaren potentzia eten egiten da ibilgailuaren abiadura ≤ 25 km/h-koa denean, eta etengabeko potentzia izendatua edo garbia ≤ 1.000 W-ekoa da.



Tranbia.



Mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailua.



Mugikortasun pertsonaleko ibilgailua (MPI).

Plaza bakarreko ibilgailua, gurpil bat edo gehiago dituena, eta propulzioa soilik lortzen duena 6 km/h-tik

25 km/h-ra bitarteko gehieneko diseinu-abiadura ematen dioten motor elektrikoek bidez. Eserleku edo zela bat izan dezake, betiere autoerakete-sistema badu. Definizio honetan ez dira sartzen zela bai baina autoerakete-sistemarik ez duten ibilgailuak, lehiaketarako sortuak diren ibilgailuak, mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuak, eta 100VCC edo 240VAC-etik gorako lan-tentsioa dutenak.



Pedalei eragiteko laguntza duen bizikleta.

Motor elektriko lagungarri bat daukan bizikleta, gehienez ere 250 W-ko edo hortik beherako etengabeko potentzia izendatua duena; potentzia pixkanaka gutxitzen joaten da, eta, azkenik, geratu egiten da ibilgailuaren abiadura 25 km/h-ra iritsi baino lehen edo ziklistak pedalei eragiteari uzten dionean.

IBILGAILU MOTORDUNAK

Ibilgailu motorduna: Propulsiarako motorra duen ibilgailua.

AUTOMOBILAK



Motozikleta.*



Motozikleta sidekarduna.*



Hiru gurpileko ibilgailua.*

*** 50 cm³-tik gorako zilindro-bolumena.**



Kuatriziklo astuna:

Lau gurpil. Abiada-masa ez da izango honako hauek baino handiagoa:

- 450 kg bidaiarien garraioan.
- 600 kg salgaien garraioan.



Turismoa:

Pertsonak garraiatzeko automobila, gehienez 9 plaza dituena, gidariarena barne.

Turismo eratorria.



Ibilgailu misto moldagarria:

Aldi berean pertsonak eta salgaiak garraia ditzake.



Autobusa edo autokarra

Pertsonak eta ekipajeak garraiatzeko, 9 plaza baino gehiago dituena, gidariarena barne.



Autokarabana:

Bizilekua/etxebizitza.



Furgoia edo furgoneta.*

Karrozerian integratutako kabina.



Kamioia.*

Karrozerian integratu gabeko kabina.

* Salgaiak garraiatzeko.
Gehienez 9 plaza, gidariarena barne.



Trakzio-kamioia:

Batez ere erdiatoi bat herrestan eramateko.

Ibilgailu-taldeak:



• **Ibilgailu artikulatua.**

Ibilgailu motorduna + erdiatoia.



• **Errepide-trena.**

Ibilgailu motorduna + atoaia.



• **Europako sistema modularra**

(Megakamioiak).
6 ardatz-lerro baino gehiago

dituen ibilgailu-taldea. (GMBa, 60 tona, eta gehieneko luzera, 25,25 metro).